

Gure aplikazioa garatzeko prozesu ekoizlea funtsezkoa da. Horretarako, softwarearen kodea sortu eta probak egingo ditugu. Gainera, aplikazioaren erabilera hobetzeko aldizkako eguneraketak garatzen ditugu.

Bezeroen beharrak azkar eta eraginkortasunez konpontzea gure lehentasunetako bat da. Adibidez, erabiltzaileek aplikazioarekin izan ditzaketen arazo teknikoak konpontzen ditugu, eta horretarako, gure webgunean laguntza eskatu eta langile batzuk prest egongo dira laguntzeko.

Gure aplikazioa eskuragarri dago mugikorretarako plataformetan, hala nola App Store eta Google Play-n. Horrez gain, gure webguneak informazioa eskaintzen du eta aplikazioaren deskarga loturak biltzen ditu. Sare sozialen bidez, gure marka sustatzen dugu eta erabiltzaileekin harreman zuzena mantentzen dugu.

Banaketa eta instalazioaz arduratzen gara baita ere gure teknikari eta gidarien bidez.

Gure jarduerak gehienbat guk kudeatzen baditugu ere (softwarearen garapena eta aplikazioaren eguneratzeak), kanpoko zerbitzuak ere erabiltzen ditugu: datuen hodeian biltegiratzea edo sare sozialen iragarkiak kudeatzeko tresnak. Ezagutza teknikoa gure taldekideek kudeatzen dute, eta ezinbestekoa da gure aplikazioaren kalitate-maila mantentzeko.